

❖ BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure kafetegiak produktu ekologikoak eta osasuntsuak eskainiko ditu, betiere bertako produktuak izanik. Honekin, plastikoaren erabilera murrizten saiatuko gara, berotze-efektuari aurre egiteko asmotan; eramateko platerak, edalontziak... etab. Produktu ekologikoak eta bertakoak direnez, eskaerak anitzak izatea espero dugu.



Gure kafetegiaren diseinuak aspektu erakargarria izango du. Lokalaren barnealdean apalak egongo dira liburuekin, sofak, aulkiak... etab. Gainera, terraza bat izango dugu, udan zein neguan irikita egongo dena. Neguan, gainera, berogailu batzuk izango ditugu, bezeroak goxotasunean egon daitezzen. Bestalde, erabilitako

kafe-kapsulak berrerabiltzeko kutxa bat izango da bertan, gure ingurumena zaintzearen helburua sustatzeko.

Laburbilduz, gure balio-proposamena honako hau da: kalitate ezinhobea, elikadura osasungarria, terraza-zerbitzua eta egonaldi atsegina.